



# ARMAIRUAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

ÁREA DE CULTURA E IGUALDAD  
Área de Cultura e Igualdad

KULTURA ETA BERDINTASUNEN ALORRA  
Kultura eta Berdintasuneko Alorra

## ESLEIPENA

Armairua Emakumeen Etxean jarduerak egiten dituzten emakumeen elkarteei esleituko zaizkie.

Lokalik ez duten elkarteek eskatu ahal izanen dute lehentasunez armairua.

Elkarte bakoitzari armairu bakarra esleitu ahal izanen zaio.

Armairu bat eskatzeko, armairuaren eskaera-fitxa bete behar da.

Aurreko urtean armairua esleitzeko eskatu eta behar beste armairu ez izateagatik elkartebati ez bazitzaion armairurik esleitu, hurrengo urtean, armairua eskatu eta baldintza guztiak betetzen baditu, esleipenean lehentasuna izanen du aurreko urtean armairua eskuratu zuten elkarteen aurrean.

## ARMAIRUA ERABILTZEKO ARAUDIA

Armairua esleitu ondoren, hura eskatu duen elkarteko pertsonak koordinatu beharko du haren erabilera. Armairu bakoitzaren ardura duen elkartea arduratuko da bere gauzak armairuan gorde eta biltzeaz.

Armairuetan ezin izanen da produktu galkorrik, sukoiarik, toxikorik edo arriskutsurik gorde. Armairuaren zer sartzen den esleitu izan zaion elkartearen ardura izanen da.

Legezko araudiaren arabera, armairua ezin dira postontzi gisa erabili gutunak jasotzeko.

## GILTZEN GORDAILUA

Armairuetako giltzak Emakumeen Etxean gordeko ditu hango laguntzaileak, eta, beraz, haren ordutegiaren arabera erabiltzen ahalko dira. Neguan, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara. Udan, Emakumeen Etxearen ordutegiari egokituko zaio erabilera, eta elkarteei ordutegi horren berri emanen zaie.

Etxearen kudeaketan laguntzen duen pertsonak giltzak hartzen dituzten pertsonen erregistroa eramanen du, eta bertan data, giltza hartu duen pertsonaren izen-deiturak eta elkartearen armairua agertuko dira. Pertsona horrek Emakumeen Etxea utzi aurretik itzuli beharko du giltza.